



**HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2017KO MAIATZAREN 11KO EBAZPENA, HIRU LURRALDEETAKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAN ALDI BATERAKO LANPOSTUAK ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO PROZESUA DEITZEN DUENA ETA HEZKUNTZA IKUSKARI LANPOSTUETAN ALDI BATEAN ARITZEKO ORDEZKOGAIEN ZERRENDA SORTZEN DUENA.**

Lanpostuetan aritzeko era berezia da zerbitzu-eginkizuna. Uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 legeak, azaroaren 7ko 16/1997 legearen bidez aldatuak, 54. artikuluan eta, ordezkotik, urriaren 13ko 190/2004 errege dekretuak, irailaren 12ko 170/2006 dekretuaren bidez aldatuak eta Administrazio Publikoetako pertsonal funtzionarioaren lanpostuak betetzeko araudia onartzen duenak, arautzen dute.

Ekainaren 28ko 98/2016 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzarenak, 24. artikuluan lanpostuak aldi baterako betetzeko era xedatzen du. Aldi baterako, zerbitzu-eginkizunetan ari diren funtzionario irakasleekin, beteko dira lanpostuak. Funtzionario irakasle horiek Hezkuntza Ikuskarrien Kidegora sartzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Halaber, Hezkuntza ikuskari-lanpostuetan aldi batean aritzeko ordezkogaien zerrenda bat sortzea aurreikusten da aipatutako dekretuan, deitutako lanpostuak bete ondoren. Zerrendako pertsonak, 98/2016 dekretuak 25. artikuluan ezarritako premia eta lehentasunen arabera, hartuko dira, lehenik eta behin, kontuan, ikasturtean ondoren gertatuko diren eta ikasturte bat baino gehiagokoak izango diren lanpostu hutsak edo ordezkapenak zerbitzu-eginkizunetan betetzeko orduan.

98/2016 dekretuak 25.4. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerrenda hutsik badago edo Hezkuntza Ikuskaritzan bete gabeko lanpostuak badaude, Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzu-eginkizunetan betetzeko lanpostuen deialdia emango du, ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak argitara, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitatearen printzipioei kasu eginez. Lanpostuen deialdian esperientzia profesionalaren balorazioa, zuzendaritza-karguetan aritzea, merezimendu akademikoak, prestakuntza eta lanpostuari lotutako txosten eta argitalpenak hartuko dira kontuan. Halaber, deialdiak memoria bat aurkeztu eta baloratzea eta, behar izanez gero, defenditzea, ere sartuko du.

Hezkuntza Ikuskaritzan aldi baterako zerbitzu-eginkizunetan betetzeko egindako deialdietara aurkeztu diren ordezkogaiak, deialdian ezarritako gutxienezko baldintzak gainditu arren lanposturik lortu ez badute, Hezkuntza ikuskari-lanpostuetan aldi batean aritzeko ordezkogaien zerrendan sartuko dira eta lanpostuak betetzeko deialdian lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuak izango dira. Zerrenda hori lau ikasturteko aldi batean, gehienez, izango da baliagarri.

Deialdi honen lanpostu konkretuak esleitzeko eta, deialditik abiatuta, sortuko den zerrenda kudeatzeko orduan, ekainaren 28ko 98/2016 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzarenak, xedatzen duena hartuko da kontuan.

Dekretuak 4. atalaren 9. artikuluan hau xedatzen du: “lurralde bakoitzeko Ikuskaritza zonaldeek globalki tratatu ahal izango dituzte Hezkuntza Ikuskaritzari dagozkion funtzio desberdinak eta jarduera espezializatu bat aurrera eraman ahal izateko moduko ikuskarrien kopurua izango dute, ikastetxeen ezaugarri geografikoen, linguistikoen, tamainaren eta tipologiaren arabera”.



Ikuskaritzako lanpostu guztiak hezkuntza-maila guztietako irakasleei irekita daude. Dena den, 98/2016 dekretuak 9.5. artikuluan xedatutakoaren arabera, zonalde talde bakoitza osatzeko orduan osaketa hori orekatua izateko behar diren espezializazioa eta aldez aurreko irakaskuntza-esperientzia hartuko dira kontuan.

Horregatik, ikastetxeen tipologiari egokitutako jarduera espezializatu bat aurrera eraman ahal izateko moduko antolaketa bati erantzuna eman ahal izateko, une honetan Hezkuntza Ikuskaritzak dituen baliabideetatik abiatuta eta aipatutako artikulua aplikatuz, ikuskaritzafuntzioa optimizatuko duten lehentasun batzuk ezarriko dira deitzen diren lanpostuak esleitzeko orduan.

Espezializazioaren eta aldez aurreko irakaskuntza-esperientziaren arabera eta ikuskariaren taldeak zonaldeetik arreta eman behar dien ikastetxeen tipologia kontuan hartuta, lanpostuak betetzeko ondorengo lehentasunak ezartzen dira:

- Haur edota Lehen Hezkuntzako irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko esperientzia, gutxienez, duen ikuskaria.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoko irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko esperientzia, gutxienez, duen ikuskaria.
- Lanbide Heziketako irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko esperientzia, gutxienez, duen ikuskaria.
- Arte eta Hizkuntzetako irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko esperientzia, gutxienez, duen ikuskaria.

## OINARRIAK:

### **Lehena.- Deialdiaren helburua**

Deialdi honek bi helburu ditu:

1. Behin-behingo, zerbitzu-eginkizunetan, betetzea hutsik dauden Hezkuntza Ikuskaritzako hiru lanpostu 2017/18ko eta 2018/2019ko ikasturteetan, ekainaren 28ko 98/2016 dekretuak xedatutakoaren arabera.
2. Hiru lurraldeetan Hezkuntza ikuskari-lanpostuetan aritzeko ordezkogaien zerrenda bat sortzea, aipatutako dekretuak 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

### **Bigarrena.- Bete beharreko lanpostuak.**

98/2016 dekretuak 9.4. artikuluan xedatutakoan oinarritua eta ikuskariaren taldeak zonaldeetik arreta eman behar dien ikastetxeen tipologia kontuan hartuta, lanpostu hauek, beraien lehentasunarekin, deitzen dira:

- Bizkaia: 2 lanpostu. Lehentasuna: Haur edota Lehen Hezkuntzako irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko gutxienezko esperientzia izatea. Ordezkapenak egiteko zerrendak sortzea.
- Gipuzkoa: 2 lanpostu. Lehentasuna: Haur edota Lehen Hezkuntzako irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko gutxienezko esperientzia izatea. Ordezkapenak egiteko zerrenda sortzea.

Hautatuak izan eta deitutako lanpostuen lehentasuna egiaztatzen duten pertsonen lehentasuna izango dute lanpostu horiek lortzeko, eta deialdian lortutako guztizko puntuazioa izango da irizpide bakarra.



Deitutako lanpostuaren lehentasuna inork egiaztatu ezean, deialdian lortutako guztizko puntuazioaren arabera selekzionatua izan den edozein ordezkogaik beteko du lanpostu hori.

**Hirugarrena.- Hiru lurraldeetarako zerrenda bat sortzea, Hezkuntza ikuskari-lanpostuetan aldi batean aritzeko.**

Hiru lurraldeetan Hezkuntza ikuskari-lanpostuetan aritzeko ordezkogaien zerrenda sortzeko, aurkeztu ahal izango dira deialdi honetara laugarren oinarrian zehaztutako baldintzak betetzen dituzten irakasleak.

Zerrenda osatuko da batetik, deialdi honetan bete behar diren lanpostuetara aurkeztu eta lanposturik lortu ez duten hautagaiekin, eta bestetik, ordezkapenak egiteko eskaera aurkeztu direnekin, kasu bietan oinarri hauetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badituzte, eta lau ikasturteko izango da baliagarri, gehienez ere.

Zerrenda lanpostuak betetzeko deialdian lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuko da, eta bertan jasoko da hautagai bakoitzari dagokion lehentasuna tipologia bakoitzeko lanpostuak betetzeko.

Atariko xedapenetan azaldu den moduan, zonalde bakoitzean ikuskari-taldeak atenditu behar dituen ikastetxeak kontuan izanik, ondoko lehentasunak ezartzen dira:

- Haur edota Lehen Hezkuntzako irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko esperientzia, gutxienez, duen ikuskaria.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoko irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko esperientzia, gutxienez, duen ikuskaria.
- Lanbide Heziketako irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko esperientzia, gutxienez, duen ikuskaria.
- Arte eta Hizkuntzetako irakaskuntza zuzenean bi ikasturteko esperientzia, gutxienez, duen ikuskaria.

Lehentasun horiek irizpide izango dira lanpostuak betetzerakoan.

Zerrenda oinarri hauetan adierazitakoaren arabera kudeatuko da. Horiek horrela, lanposturen bat aldi baterako bete behar izanez gero, lanpostu horretarako ezarri den lehentasunaren arabera adierazitako irakaskuntza zuzena egiaztatzen dutenei deituko zaie lehenik.

Deitutako lanpostuaren lehentasuna inork egiaztatu ezean, deialdian lortutako guztizko puntuazioaren arabera selekzionatua izan den edozein ordezkogaik beteko du lanpostu hori.

Deitutako lanpostua baino lehenago, ordezkogaien zerrenda osatzen duten kolektibo desberdinen lehentasun-ordena hartuko da kontuan (ekainaren 28ko 98/2016 dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzaren, 25. artikulua).

**Laugarrena.- Baldintzak.**

- Karrerako funtzionarioa izatea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako kidegoetakoren batean eta kidego horretan, gutxienez, sei urteko antzinatasuna izatea.
- Zerbitzu aktiboan aritzea eta irakasle gisa sei urteko gutxienezko esperientzia bat egiaztatzea hezkuntza-sistema publikoa osatzen duten edozein ikastetxe eta mailatan.
- Doktorearen, lizentziatuaren, arkitektoaren, ingeniariaren edo Graduako titulua, edo beste titulu baliokide batzuk, izatea edo titulu horiek emateko tasak ordaindu izana.
- 2.hizkuntza eskakizuneko lanpostuetan aritzeko trebatua izatea.

**Bosgarrena.- Eskaera eta dokumentazioa.**

Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek Langileak Kudeatzeko zuzendariari aurkeztu beharko diote eskaera, baita exijitutako baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa, memoria eta alegatutako merezimenduak ere, erantsitako baremoan eta oinarri hauen oharretan adierazitakoaren arabera. Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzetan edo urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4. artikuluan adierazten duen edozein erregistroan aurkeztu beharko dute dokumentazioa.

Eskaeran azaltzen ez diren merezimenduak ez dira baloratuko, ezta agertu arren behar bezala egiaztatu ez direnak ere. Eskaerak aurkezteko epeak bukatzen duen datara hobetutako merezimenduak besterik ez dira barematuko. Bidaltzen diren fotokopia guztiek alderatzeko eginbideekin batera joan beharko dute.

**Seigarrena.- Eskaerak aurkezteko epea**

2017ko maiatzaren 12tik 19ra bitartekoa izango da eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko epea. Eskaera, memoria eta dokumentazioa aurkezteko epea ezin da luzatu.

Balorazio Batzordeak interesdunei eska diezaieke zerbait argitzeko edo dokumentazio osagarria aurkezteko, baldin eta betekizun bat behar bezala egiaztatzeko edo alegatu diren merezimenduak baloratzeko beharrezkotzat jotzen badu. Horrelakoetan, hautagaiari eskatuko zaio hamar egun baliodunetan aurkezteko eskatu zaion informazioa.

**Zazpigarrena.- Baloratze Batzordea**

Lehiatzaileek alegatutako merezimenduak baloratzeko, ondorengo kideek osatuko duten batzorde bat eratzen da:

- Hezkuntza sailburuordeak edo eskuordetzen duen pertsonak. Batzordeburu gisa ari izango da.
- Hezkuntza ikuskari nagusiak.
- Ikuskari zentral batek.
- Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari batek, idazkari arituko dena.

Halaber, sektorean ordezkariak duen sindikatu bakoitzeko delegatu bat egon ahal izango da batzordean, hitzarekin baina botorik gabe.

**Zortzigarrena.- Deialdia ebatzea.**

Langileak Kudeatzeko zuzendariak, Baloratze Batzordearen proposamenez, ebatziko du zerbitzu-eginkizuna.

Ordezkoak deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, memoriaren ebaluazioa, merezimenduen barematzea eta elkarrizketa egin ostean eta hirugarren oinarrian adierazitako lehentasunak kontuan hartuta, deialdiaren behin-behineko ebazpena emango da Sailaren web orrian argitara. Hiru laneguneko epe bat irekiko da, erreklamazioak egiteko. Selekzionatua izateko, gutxienez eman daitekeen puntuazioaren % 50 lortu behar da, memorian eta elkarrizketan.

Erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, zerbitzu-eginkizunetako behin-betiko esleipenari buruzko ebazpena, Sailaren web orrian argitara emanaz, emango du Langileak Kudeatzeko zuzendariak argitara. Gorako errekurtoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.



Deialdi honetan zerbitzu-eginkizunetan lanposturen bat behin-behingo ezleitzen zaion ordezko gaiak izango du lanpostu horri uko egiteko aukera, betiere uko egitea behin-betiko ezleipenari buruzko ebazpena baino lehenago aurkezten bada.

#### **Bederatzigarrena.- Administrazio-egoera eta luzapenak.**

2017ko irailaren 1etik aurrerako ondorioak dituen zerbitzu-eginkizun bat, 2018/2019ko ikasturteak bukatu arte, emango zaie deitutako lanpostuetarako selekzionatutako karrerako funtzionarioei. Zerbitzu-eginkizunak ezin izango dira bi urtetik gorakoak izan eta beste bi urterako luzatu ahal izango dira, ikuskariak, horretarako ezartzen den prozeduraren bidez, ebaluazio positiboa egiten badu, deialdi hori eragin duten premiek jarraitzearen edo lanpostuak betetzeko prozesuen bidez behin-betikoz betetzearen baldintzapean.

Eszedentzian dagoen, atxikita dagoen, izendatu zaion edo aldi baterako beste lanpostu batean ari den Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarrien Kidegoko pertsonaren bat zerbitzu-eginkizuna indarrean dagoen aldiaren lanpostura berriz etortzen bada, Hezkuntza Ikuskaritzan zerbitzu-denbora gutxienean eman duen pertsona izango da, ikastetxean daudenen artean, zerbitzu-eginkizuna utziko duena. Berdinketa gertatuz gero, karrerako funtzionario irakasle gisa emandako zerbitzu-denbora erabiliko da berdinketa hausteko lehen irizpide gisa eta, berdinketak jarraituz gero, pertsonal irakasle gisa emandako zerbitzuen guztizko denbora erabiliko da berdinketa hausteko bigarren irizpide gisa.

#### **Hamargarrena.- Administrazio-prozedura.**

Prozeduraren arloan ebazpen honetan arautzen ez diren puntuetan, urriaren 1eko 39/2015 legea, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearena, eta urriaren 1eko 40/2015 legea, Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoarena, aplikatuko dira.

#### **Hamaikagarrena.- Datu pertsonalak babestea.**

Eskatzaileek aurkezten dituzten datu pertsonalak datu pertsonalen fitxategi automatizatu batera sartuko dira eta deialdi hau kudeatzea izango du fitxategi horrek helburu. Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren arduraduna eta Zuzendaritza horretan erabili ahal izango dira datuetara sartzeko, zuzentzeko, ixteko eta aurkatzeko eskubideak (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Eskatzaileek espresuki ematen diote beren datu pertsonalak deialdi honetan adierazitako eran eta helburuarekin tratatuak izateari oniritzia, baita Hezkuntza Sailaren web orrian ([www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus)) eta Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkaritzetako iragarkitautetan argitaratu emateko ere, deialdiaren tramiteei begira bakarrik.

### **ERREKURTSOAK**

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, berau jakinarazi eta biharamunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 11a

**KONRADO MUGERTZA URKIDI**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**



## ERANSKINA

<b>BAREMOA: GEHIENEZ ERE 30 PUNTU Kontzeptuak</b>		<b>Puntuazio partziala</b>	<b>Gehienezko puntuazioa</b>
<b>1. ESPERIENZIA PROFESIONALA</b>			<b>6</b>
1.1	Irakaskuntza-esperientzia zuzena hezkuntza-sistema publikoa integratzen duten edozein ikastetxe eta mailatan, baldintza gisa exijitutako sei puntutik gorakoa bada	0,02 puntu hilabeteko	3
1.2.	Hezkuntza ikuskari gisa emandako zerbitzuak	0,20 puntu hilabeteko	3
1.3	PAT, CEIDA /INGURUGELA, BERRITZEGUNE, ISEI-IVEI edo IDC laguntza-zerbitzuetan edo beste hezkuntza-administrazio bateko laguntza-zerbitzuetan emandako zerbitzuak	0,04 puntu hilabeteko	2
<b>2.- ZUZENDARITZA KARGUAK</b>			<b>6</b>
2.1	Ikastetxe publiko bateko zuzendari-karguan ari izana.	0,1 puntu hilabeteko	6
2.2.	PAT, CEIDA /INGURUGELA, BERRITZEGUNE, ISEI-IVEI edo IDC laguntza zerbitzuetan edo beste hezkuntza-administrazio bateko laguntza-zerbitzuetan zuzendari-kargua bete izana.	0,05 puntu hilabeteko	2
2.3	Ikastetxe publiko bateko idazkari-, eguneko edo gaueko ikasketa-buruaren eta alboko zuzendari-kargua bete izana.	0,04 puntu hilabeteko	2
<b>3. MEREZIMENDU AKADEMIKOAK</b>			<b>3</b>
3.1	Hezkuntza Ikuskaritzako LEPetako batean oposizio-fasean exijitutako gutxienezko puntuazioa lortu izanagatik.		2
3.2	Katedraduna izateagatik.		1
3.3	Doktore-titulua izateagatik.		1
3.4	Baldintza gisa alegatutakoak ez diren beste unibertsitate-titulazio batzuk izateagatik.	0,50 puntu zikloko	1
3.5	Hizkuntzak (gaztelania eta euskara izan ezik):gehienez ere 2 puntu. Ondorengo titulu edo agirietakoren baten fotokopia konpultsatua bidez egiaztatuko da:  a) Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste Autonomia Erkidego batzuetako Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako titulu edo ziurtagiriak.  b) Maiatzaren 15eko 73/2012 dekretuaren (2012ko maiatzaren 29ko EHAA) eranskinean	- C1 titulua: 1,5 puntu hizkuntzako. - B2 titulua: puntu 1 hizkuntzako. - B1 titulua: 0,5 puntu hizkuntzako.	2



	agertzen diren titulu edo ziurtagiriak.		
<b>4.PRESTAKUNTZA</b>			<b>3</b>
4.1	Hezkuntza-ebaluazioari lotutako prestakuntza.	0,02 puntu orduko	1
4.2	Eskola-antolaketa, ikastetxeak ikuskatzeari eta kalitatea kudeatzeko sistemari lotutako prestakuntza.	0,02 puntu orduko	1
4.3	Curriculum-arloei, oinarriko gaitasunei eta didaktika orokorrari lotutako prestakuntza.	0,01 puntu orduko	1
4.4	Hezkuntza-orientabideari, aniztasunari eman beharreko arretari, tutoretzari, elkarbizitzari, gatazkak konpontzeari, berdintasuna sustatzeari, hezkidetzari eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioari lotutako prestakuntza.	0,01 puntu orduko	1
4.5	Informazio eta Komunikazio Teknologiei lotutako prestakuntza.	0,01 puntu orduko	1

<b>5. TXOSTEN ETA ARGITALPENAK</b>			<b>2</b>
5.1	Txostenak edo irakasleak prestatzeko ikastaroak emateagatik.	0,10 puntu orduko	2
5.2	Lanpostuaren edukiari lotutako argitalpenak. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Autoretzaren argitalpenak</li> <li>• Koautoretzaren argitalpenak edo autoreen taldearen argitalpenak</li> </ul> <p>Azaroaren 2ko 2984/1972 dekretuak, abenduaren 12ko 2063/2008 errege dekretuaren bidez aldatuak, xedatutakoaren arabera ISBN, edo ISSN edo ISMN, derrigorrean adierazi behar duten arren ez duten argitalpenak ez dira baloratuko, ezta autorea eta editorea pertsona bera diren horiek ere.</p>	0,5 0,25	2
<b>6. MEMORIA ETA ELKARRIZKETA</b>			<b>10</b>
6.1	Ikuskaritza-funtzioan aritzeari buruzko memoria, gehienez ere 15 orrikoa.		5
6.2	Elkarrizketa.		5



## **OHARRAK**

### **Lehena: ohar orokorrak**

- Ez dira deialdirako exijitutako gutxienezko nota gainditzen ez dutenen merezimenduak baloratuko.
- 30 egun hartzen dituen aldia joko da hilabetetzat. Hilabete batera iristen ez diren aldi bakoitzeko egunak batuko dira eta emaitza, zati 30, hilabete osoei gehituko zaie.
- “Txosten eta argitalpenak “ atalean ez dira lanpostuaren funtzioetan aritzean egin direnak zenbatuko.

### **Bigarrena: Memoria**

Memorian ondorengo alderdiak baloratuko dira:

- Hezkuntza Ikuskaritzaren izateko arrazoia (puntu 1era arte).
- Eskatutako lanpostua dela-eta Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioen balorazioa (puntu 1era arte).
- Erreferentziako ikuskariak ikastetxeak ikuskatzean izan duen funtzioa eta haien hobekuntzari egin dion ekarpena (puntu 1era arte).
- Hezkuntza Ikuskaritzaren antolaketari buruzko balorazio eta ekarpenak (puntu 1era arte).
- Berriztapena Hezkuntza Ikuskaritzan: begirada bat etorkizunari (puntu 1era arte).

### **Hirugarrena: elkarrizketa**

(Bigarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta memoria exijitutako gutxienezko puntuaziora iristen diren ordezkogaiei besterik ez zaie elkarrizketa egiteko deituko) Elkarrizketak, funtsean, memoria garatu beharreko alderdiak izango ditu oinarri (puntu 1era arte) eta, gainera, ordezkogaiei ondorengo gaitasunak baloratuko dira:

- Hezkuntza Ikuskaritzan gerta daitezkeen egoera konkretuei erantzuna emateko gaitasuna (2 puntura arte).
- Profesionaltasuna: ikuskariaren gaitasun eta balio profesionalak (2 puntura arte).

### **Laugarrena: merezimendu akademikoak**

- Merezimendu gisa aurkeztutako tituluen fotokopia konpultsatuak edo, bestela, titulu horien tasak ordaindu izanaren egiaztagiria, aurkeztuko dira. Lizentziatura, arkitektura edo ingeniari baten lehen zikloko ikasketak baloratzeko, ziurtagiri akademikoak aurkeztu beharko da, ziklo horren irakasgai edo kredituak gainditu direla espresuki adieraziko duena.

Unibertsitate-titulazioak, erdi mailakoak, diplomaturak edo lehen zikloko titulazioak, lizentziatura desberdin bat lortzeko baliagarri izan badira edo haien bigarren zikloa alegatu bada, ez dira kontuan hartuko.

Diplomaturak, Ingeniaritza Teknikoak, Arkitektura Teknikoak edo alegatzen diren lehen zikloak baloratzeko, espediente akademikoak aurkeztu beharko da.

Ofizios zenbatuko dira alegatzen diren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko Pertsonalaren Erregistroan jasota agertzen diren lizentziaturak, ingeniariak, arkitekturak eta graduak.

### **Bosgarrena: prestakuntza**

- Prestakuntzaren atalean ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatutakoak, 10 ordutik gorakoak, besterik ez dira baloratuko.



**Seigarrena: txosten eta argitalpenak.**

- Aurkeztutako argitalpenen jatorrizkoa bidali beharko da. Bideoak, CD-ROM ... bezalako euskarri berezietan publikatutako materialen kasuan, argitalpen horiekin batera joan daitekeen dokumentazio inprimatua ere aurkeztu beharko da (karatulak, helburu eta edukiak azaltzeko liburuxkak, inpresioak.. ).  
Formatu elektronikoan besterik ematen ez diren argitalpenen kasuan, txosten ofizial bat ere aurkeztu beharko da eta argitalpena datu bibliografikoen basean agertzen dela ziurtatuko du organismo bidaltzaileak txosten ofizial horretan. Agiri horretan datu-basea, argitalpenaren titulua, autoreak, urtea eta URL adieraziko dira. Organismo bidaltzailea desagertu izanagatik edo atzerrian argitara emandako publikazioak izateagatik txostena aurkezterik ez badago, zuzenbidean onartzeko moduko edozein frogaren bidez justifikatu beharko dira txosten horretan eskatzen diren datuak.

**Zazpigarrena: selekzioa**

Deitutako lanpostu bakoitzerako selekzioa egiteko, ondorengo baldintzak hartuko dira kontuan:

- Selekzionatua izateko, 2,5 puntu, gutxienez, izan behar dira memorian eta elkarrizketan.
- Puntuazioaren guttizkoan bi ordezkogairen edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero, baremoaren tala bakoitzean izaten den puntuazioaren arabera hautsiko da berdinketa. Berdinketak jarraituz gero, azpiatal desberdinetan lortutako puntuazioa, baremoan agertzen diren ordenan, hartuko da kontuan.
- Lanpostu bakoitzerako lehentasunak adierazten duenez, lehentasun hori duen ordezkogaia betiere ez duenaren aurretik egongo da, baremoa alde batera utzita. Dena den, memorian eta elkarrizketan ezarritako gutxienezko puntuaziora iritsi ezean, ezin izango zaio selekzionatu.